



BEASAINDIK

ARGITARATZAILEA: BEASAINGO UDALA • LG SS-00403-2016

Beasain, gozatu gure Loinatz jaietaz!

El espectáculo de drones sustituye a los fuegos artificiales por primera vez. Zea Mays y Süne lideran los conciertos en Bideluze plaza



Udaltzaingoaren Agente
tutorea: gazteen artean
prebentzioa sustatuz

—
04-05



Antzizargo
biribilgune berriak
bide segurtasuna
areagotuko du

—
06



Leire Artola Ugalde
BEASAINGO ALKATEA

Jaiak elkarrekin ospatzeko unea iritsi da

Maiatzaren ondarrean, herriko txoko guztiak pizten hasi dira bihotzean irrika berezi bat piztuz: Loinatz jaiak ate joka ditugu. Urteko une berezi hau iritsi da berriz, eta pozik, ilusioz beteta gaude, berriz ere gure kaleak bizitzaz, musikaz eta kolorez beteko direlako.

Aurten ere, elkarbizitza, errespetua eta prebentzioa izango dira gure festetako oinarri sendoak. Gune Morea izango dugu indarkeria matxistari aurre egiteko espazio seguru eta irekia. Horrez gain, gure udaltzaingoaren agente tutoreak lan handia egin du gazteen artean kontzientzia zabaltzen, eta jai osasuntsu eta arduratsu batzuen alde egingo dugu.

Baina festak ez dira bakarrik oharrak eta gomendioak. Jai hauek elkarrekin sortutakoak dira, iazko balorazioetan jasotako ideiak kontuan hartuta egitaraua borobildu nahi izan dugu. Gazteentzako tailerrak, kale giro bizia txarangekin, eta zer esanik ez, dronen ikuskizun ikusgarria, aurten su artifizialen orde zera margotuko diguna.

Eta ezin aipatu gabe utzi danborradak, haurren danbatekoa, Mariren jaitsierako emozioa edo gure herriko plaza eta kaleetan elkarrekin dantzatu eta abestuko ditugun kantuak. Une txiki horiek dira, hain justu, gure jaiak benetan berezi egiten dituztenak.

Eskerrik beroenak eman nahi dizkiet jai hau posible egiten ari zareten guztioi: antolakuntzan, zaintzan eta garbitasunean lanean

ari zareten guztiei, eta nola ez, parte hartzen duzuen herritar guztiei.

Bizi ditzagun jaiak elkar zainduz, errespetuz eta, batez ere, pozez gainezka!

Gora Beasaingo Loinatz jaiak!

Las fiestas de Loinatz están a punto de comenzar, y no puedo evitar sentir emoción al ver cómo Beasain se prepara para vivir, un año más, unos días llenos de alegría, tradición y convivencia. Como alcaldesa, me hace especial ilusión invitaros a disfrutar de estas fiestas desde el respeto, la responsabilidad y, sobre todo, desde el cariño por nuestro pueblo.

Este año, además de los actos tradicionales, hemos incluido nuevas propuestas nacidas de las aportaciones que hicisteis tras las fiestas del pasado año: talleres para jóvenes, más ambiente callejero con txarangas y un espectáculo de drones que sustituirá a los fuegos artificiales, combinando tecnología, arte y sostenibilidad.

Quiero destacar también el trabajo en prevención: contaremos con el Gune Morea contra la violencia machista, campañas de consumo responsable, y la implicación del agente tutor de udaltzaingoa en los centros educativos.

Gracias de corazón a todas las personas que hacéis posible estas fiestas. Os animo a vivirlas de forma participativa, respetuosa y con ilusión.



**Beasain se prepara
para vivir sus Loinatz
Jaiak, del 30 de mayo
al 8 de junio, con
novedades para
todas las edades**

Tradición renovada en clave sostenible

Del 30 de mayo al 8 de junio, Beasain celebrará sus tradicionales Loinatz Jaiak con un programa repleto de actividades que conjugan tradición, innovación y respeto al entorno. Una de las grandes novedades será el espectáculo nocturno de drones, que reemplazará a los tradicionales fuegos artificiales, marcando un paso hacia una celebración más sostenible. La empresa Flock Drone Art Studio dirigirá una coreografía aérea con 120 drones sincronizados con música y efectos especiales.



Beasain prest maiatzaren 30etik ekainaren 8ra Loinatz Jaiak ospatzeko, jarduera berritzaileekin eta adin guztietarako ekitaldiekin

Fiestas para todas las edades

El cartel oficial, obra del gasteiztarra Luis Ángel Argote, y el infantil, de Nahia Altuna de Alkartasuna Lizeoa, anuncian unas fiestas que arrancarán con el tradicional chupinazo a cargo del alumnado de Murumendi Eskola. La bajada de Mari, uno de los momentos más esperados, se retransmitirá en directo por YouTube, tras el éxito del año anterior.

Los más jóvenes disfrutarán de talleres de skate, graffiti y DJ en Iturralde plaza, mientras que la tamborrada infantil recupera su horario matinal. Además, vuelve la iniciativa de la “hora sin ruido” en las barracas, en apoyo a las personas con diversidad funcional.

El Ayuntamiento ha reforzado las medidas de prevención, con campañas contra el consumo irresponsable de alcohol, la violencia sexista y el fomento del respeto y la convivencia.

¡Beasain se prepara para vivir unas fiestas inclusivas, sostenibles y llenas de alegría!

★ Zea Mays eta Süne kontzertuetako kartelburu Zea Mays y Süne cabezas del cartel musical

Tradizioa berritu

Maiatzaren 30etik ekainaren 8ra, gure herriak Loinatz Jaiak ospatuko ditu, herriari lotutako tradizioa, berrikuntza eta ingurumenarekiko errespetua uztartzen dituen egitarau zabalarekin. Aurtengo berrikuntza nagusia izango da gaueko dron ikuskizuna, ohiko su artifizialen ordezkaria dena, festa jasangarriago baterako urrats gisa. Flock Drone Art Studio enpresa, 120 dronen koreografia artistikoa sortuz, musikaren eta efektu berezien erritmoan ikuskitu berezi bat eskaintzeaz ardurtuko da jaietako lehen igandean.

Adin guztietarako jaiak

Aurtengo kartel irabazlea Luis Ángel Argote gasteiztarrena izan da, eta haurren mailan Alkartasuna Lizeoko Nahia Altuna izan da garailea. Iluntasunetik argitasunak dakarren indarrarekin jaitziko da Mari Murumenditik festarako gonbita eginez. Mariren jaitziera zuzenean emitituko da udalaren YouTube kanalean, iazko arrakasta errepikatu asmoz. Aurretik arratsaldean, jaietako hasiera emango diete danbatakoarekin Murumendi Eskolako ikasleek.

Iazko ekarpenak eta proposamenak kontuan izanik, haur eta gazteentzat, eskulan, skate eta graffiti tailerrak antolatu dira Iturralde plazan, eta haurren danbo-

rrada eguerdira itzuliko da. Horrez gain, aurten ere “zaratarik gabeko ordua” izango da barraketan, aniztasun funtzionala duten pertsonen mesedetan.

Udalak prebentzio-neurriak indartu ditu, alkoholaren kontsumo arduratsuaren alde, indarkeria sexistaren eta lapurreten aurkako kanpainak sustatuz. Seguritasuna, errespetua eta elkarbizitza ardatz izango dira jai egun hauetan.

Beasain, festa parte-hartzaile, jasangarri eta alaitsurako prest!

★ Jai egitaraua jaitzeko. Para descargar el programa de fiestas



★ Mariren jaitziera zuzenean ikusteko. Para ver la bajada de Mari en directo





Gazteen artean prebentzioa sustatuz

Beasaingo Udaltzaingoaren barruan 2023an sortu zen Agente Tutorearen figura

Agente tutorearen lana

Gazteen segurtasuna, ongizatea eta hezkuntza sustatzeko lan egiten du, prebentzioan eta bitartekaritzan zentratuta. Helburu

nagusia, gazteak arrisku soziale-tatik babestea, heztea eta haien parte-hartzea sustatzea da, komunitateko bizikidetzat ona bultzatuz.

Hezkuntza eta Prebentzio Ekintzei lotuta, iaz, hitzaldiak eta tailerrak eskaini zituen eskolatan, hala nola, ziberjazarpena, jazarpena (bullying), eta sare sozialen erabilera seguruari buruz (DBH 1-2). Jaien aurreko prebentzioaren inguruan, alkohola, drogen kontsu-

moa, sumisio kimikoa, eta legezko ondorioak (DBH 3). Bide-segurtasunaren inguruan, patinete elektrikoaren eta bizikleten erabilera zuzena landu zen (La Salle, Txindoki) eta dinamika interaktiboak dagokionez, "Elkar zaindu" jolasak edo "aulkien jokua" egin zituzten parte-hartzea sustatzeko. Bitartekaritza eta ongizatearen arloan, eskola-liskarren kudeaketan ikasleen arteko gatazketan bitartekari lanak egitea azaldu zuten.

Loinatz jaien atarian ikastetxe batean emandako hitzaldia



Adin txikikoen babesarekin lotura duten eginkizunak ere betetzen ditu fiskaltzarekin eta ongizate zerbitzuekin elkarlanean. Etxeko indarkeria kasuetan Foru Aldundiaren laguntza-sareekin koordinatzen da eta gazte eta familien artean gatazken konponbidean laguntzen du.

Komunitatearekin Elkarlanean, Ertzaintzarekin lankidetzat estua du, jaien inguruko operatiboetan (adibidez, Lazkaoko eta Beasaingo ikastetxeetan prebentzio saioak).

Formakuntza eta balorazio positiboa

Eginkizun guzti hauek berme osoz eraman ahal izateko, agenteak prestakuntza espezifiko jasotzen du eta Agente tutoreen kongresuetan parte hartzen du.

Ikasleen erantzunak aztertuta, 2024ko inkestetan %95ak hitzaldiak positiboki baloratu zituen. Halere, ikasle batzuk zenbait

hobekuntza proposatu zituzten, dinamika gehiago gehitzea DBH2n eta DBH 1ean konkretuki, eta saioen iraupena luzeagoa izatea eskatu zuten.

Loinatz jaietan prebentzioa eta babesa

Jaien testuinguruan ohikoak diren egoera arriskutsuei buruzko kontzientziatze lana egin da Ertzaintzarekin batera. Alkohola eta drogen inguruko kontsumoa, sumisio kimikoa, borrokak, lapurrerak... Helburua, egoera horietan nola jokatu azaltzea da, eta bide batez egoera hauen aurrean prebentzioa sustatzea. Aurtengo udaltzaingoak "etxera itzulera zaintza" delakoa burutuko du. Etxera itzultzen diren gazteei eta batez ere emakumeei segurtasun gehiago eskainiz.

El Agente tutor, una labor preventiva

En 2023 se creó en la Policía Local de Beasain la figura del Agente Tutor, con el objetivo de fomentar la seguridad, el bienestar y la educación de las y los jóvenes, centrándose en la prevención y la mediación. Su labor principal consiste en proteger a los menores de riesgos sociales y promover la convivencia en la comunidad.

Durante el año, impartió charlas y talleres en centros escolares sobre ciberacoso, bullying, uso seguro de redes sociales, consumo de alcohol y drogas, y seguridad vial con patinetes y bicicletas. También organizó dinámicas participativas como juegos de grupo para fomentar la implicación del alumnado.

En cuanto a mediación, intervino en conflictos entre estudiantes y colaboró con servicios sociales y Fiscalía en casos de protección de menores y violencia doméstica. Trabajó en coordinación con la Ertzaintza en operativos preventivos durante fiestas locales y ofreció sesiones informativas para padres y profesores.

El agente recibe formación específica sobre adolescencia y nuevas tecnologías, y participa en congresos del ámbito. En la encuesta de 2024, el 95 % del alumnado valoró positivamente las sesiones, aunque pidieron actividades más dinámicas y de mayor duración.

Los riesgos en fiestas

En la antesala de las Loinatz jaiak, el agente tutor y la Ertzaintza ofrecieron en las charlas preventivas consejos sobre cómo actuar ante situaciones de riesgo habituales en las fiestas (alcohol, drogas, agresiones, etc.). El alumnado de 3º de la ESO recibió información sobre cómo actuar y evitar estas situaciones. Además, este año volverá a prestarse el servicio de vigilancia en el regreso a casa, especialmente para mujeres jóvenes.

★ Gurasoen eta irakasleen sostengua ere badu, informazio-saioak eskainiz, gazteekin lotutako arriskuen berri emateko.

Beasainen 252 etxebizitza huts identifikatu dira

*Udalak alokairua bultzatzeko
neurriak iragarri ditu*



Beasaingo Udalak udalerriko etxebizitzaren egoerari buruzko diagnostiko zehatza aurkeztu du, eta bertan 252 etxebizitza huts identifikatu dira, etxebizitza-parkearen %3,8. Portzentaje hori Europako estandarren arabera "arrazoizko stock teknikoaren" barruan kokatzen da.

Ikei aholkularitza-enpresak egindako txostenak etxebizitza hutsak mobilizatzeko neurriak proposatzen ditu, hala nola jabeen alokairu eskuragarria sustatzeko programen eta birgaitze-laguntzen berri ematea. Etxebizitza huts gehienak 45 urte baino gehiago dituzte.

Txostenak adierazten du, gainera, Beasaingo salerosketa eta alokairu prezioak moderatuak direla Gipuzkoako beste udalerririk batzuen aldean. Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Behatokiaren arabera, Beasainek ez ditu betetzen gune tentsionatu izendatzeko baldintzak.

Udalak etxebizitza duin eta eskuragarri baterako politikarekiko konpromisoa berretsi du, alokairu soziala, birgaitzea eta erakunde arteko lankidetzaren lehenetsiz.

★ Beasain gune
tentsionatu izendatzeko
baldintzak ez dira
betetzen, Etxebizitza
Behatokiaren arabera



Identificadas 252 viviendas vacías

*Se propondran medidas para
destinarlas al alquiler*

El Ayuntamiento de Beasain ha presentado un diagnóstico detallado sobre la situación de la vivienda en el municipio, en el que se identifican 252 viviendas vacías, lo que representa el 3,8% del parque residencial. Este porcentaje se encuentra dentro del rango considerado razonable según los estándares europeos.

El informe, elaborado por la consultora Ikei, propone movilizar estas viviendas mediante medidas como informar a los propietarios sobre programas de alquiler asequible y ayudas para la rehabilitación. La mayoría de estas viviendas vacías tienen más de 45 años.

Además, el estudio señala que los precios de compra y alquiler en Beasain son moderados en comparación con otros municipios de Gipuzkoa, y destaca que el municipio no cumple los requisitos para ser considerado una zona tensionada, según el Observatorio de la Vivienda del Gobierno Vasco.

El consistorio reafirma su compromiso con una política de vivienda accesible y sostenible, priorizando el alquiler social, la rehabilitación y la colaboración institucional.



Antzizargo biribilgune berria

Beasaingo sarrera nagusietako batean kokatutako Antzizargo biribilgunea eraikitzeko lanak amaitu dira. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Beasaingo Udala-ren arteko lankidetzari esker, segurtasun handiagoa eta trafikoaren zirkulazio ordenatuagoa bermatzen duen azpiegitura berria jarri da martxan. Antzizar kiroldegia eta Loinazpe ikastetxea inguru honetan kokatzen direnez, obraren helburu nagusietako bat izan da oinezkoen eta gidarien segurtasuna bermatzea.

Azpiegitura berri honek udalerriko trafikoaren kudeaketa erraztu ez ezik, herritarren eguneroko joan-etorriak seguruagoak eta arinagoak izatea ahalbidetuko du.

Nueva rotonda de Antzizar

El Ayuntamiento de Beasain y la Diputación Foral de Gipuzkoa han finalizado las obras de conversión del cruce de Antzizar en una rotonda, una actuación clave para mejorar la seguridad vial en uno de los accesos principales al municipio.

El nuevo diseño permite ordenar el tráfico, reducir la velocidad y facilitar una circulación más segura, especialmente en una zona próxima al polideportivo Antzizar y al colegio Loinazpe. La nueva infraestructura ya está en funcionamiento, mejorando notablemente la movilidad y seguridad para vecinos y conductores.

XXVIII. Igartza Literatura Bekako proiektuak jasotzeko epea



Idazle gazteentzako aurtenko Igartza Literatura Sorkuntzarako Bekak ekainaren 30era arte dauka zabalik proiektuak jasotzeko epea. Euskal literatura eta idazle gazteen sorkuntza sustatzea du helburu sariketa honek. Proiektuak aurkezteko, udaletxeko sarrera erregistro ofizialean Igunean edo on line erregistro elektronikoa erabiliz www.beasain.eus helbidean egin beharko da.

Plazo para la recepción de proyectos de Igartza Literatura Beka

La Beca para la Creación Literaria Igartza de este año para jóvenes escritores tiene abierto el plazo de recepción de proyectos hasta el 30 de junio. El objetivo del certamen es promover la creación literaria en euskera entre la juventud. Para la presentación de los proyectos, el acceso al Registro Oficial del Ayuntamiento se deberá realizar en Igunea o a través del registro electrónico on line www.beasain.eus.

2025 BEASAINGO UDALAK ESKAITZEN DITUEN DIRULAGUNTZAK

MERKATARITZA ETA OSTALARITZA COMERCIO Y HOSTELERÍA



Informazioa Información **943 02 80 50**

BESTE DIRULAGUNTZA BATZUK (EJ/GV)

SALTOKIAK MODERNIZATZEKO (MEC)
PARA MODERNIZAR LOS ESTABLECIMIENTOS (MEC)

**TURISMO-ENPRESEK EKINTZAILETZA ETA
LEHIAKORTASUNA HOBETZEKO (EMET)**

AYUDAS AL EMPRENDIMIENTO Y A LA MEJORA DE LA
COMPETITIVIDAD DE LAS EMPRESAS TURÍSTICAS (EMET)

SUBVENCIONES OFRECIDAS POR EL AYUNTAMIENTO DE BEASAIN

01 EKOIZPENA PRODUCCIÓN



Azokako ekoizleentzat eta artisauentzat.
Para productores/as y artesanos/as del mercado.

02 IRUDI KORPORATIBOA IMAGEN CORPORATIVA



Errotulu nagusia eta establezimenduko materiala:
poltsak, zigilua, txartelak, eskuorriak...

Rótulo principal y material del establecimiento: bolsas,
sellos, tarjetas, folletos, camisetas...

03 AZPIEGITURA INFRAESTRUCTURA



**Merkataritza-lokalak alokatzea, eskualdatzea
edo erostea.** Alquiler, traspaso o compra de locales.

04 TEKNOLOGIA TECNOLOGÍA



Web orria euskaraz jartzeko.
Para poner la página web en euskera.

Eskatu zure atarirako takilla doan!

Solicita una taquilla gratis para tu portal!

Beasaingo dendetan edo-
ta online saltokietan egin-
dako erosketak zure etxean
jasotzeko, takilla bat jarriko
dizugu doan bi urtez zure
atarian inongo obrarik gabe.

Para recibir tus compras de
los comercios de Beasain u
online en tu casa, te insta-
lamos una taquilla gratis
por dos años en tu portal sin
realizar ninguna obra.

EGIN ESKAERA!

¡HAZ TU SOLICITUD!



Unitate mugatuak!
¡Unidades limitadas!

Bi urte igarota zerbitzuarekin jarraitu
nahi baduzu, 8€/hilabeteko kostua du
izango du atariko (harpidetza NORMO
enpresarekin). Eta bestela, kosturik
gabe erretiratuko dute!

Transcurridos dos años mantener el
servicio tendrá un coste de 8€/mes por
comunidad (suscripción con la empresa
NORMO). En caso contrario se retirará la
taquilla sin coste alguno.

